

1098/2025 EBAZPENA, maiatzaren 15ekoa, Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Bilbo-Basurtuko ESIko Obstetrizia eta Ginekologiako (Obstetrizia Arloa) Atal Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den

AURREKARIAK

Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari gerentearen otsailaren 26ko 420/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Bilbo-Basurtuko ESIko Obstetrizia eta Ginekologiako (Obstetrizia Arloa) Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko martxoaren 26ko EHAA 59 zk. eta 2025eko apirilaren 8ko BOE 85 zk.).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko maiatzaren 5ean amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Bilbo-Basurtuko ESIko Obstetrizia eta Ginekologiako (Obstetrizia Arloa) Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Bilbo-Basurtu ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bilbon, 2025eko. maiatzaren 15a.

Bilbo-Basurtu ESIko zuzendari gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO



Osakidetza
BILBO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO

ZUZENDARI GERENTE
DIRECTOR GERENTE
Izpt/Fdo.: Jesus Larrañaga Garitano



I. ERANSKINA

**OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIAKO (OBSTETRIZIA ARLOA) ATAL SANITARIOKO
BURUA IZENENKO LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Amelia Valladolid Urdangaray andrea.

Baztertuak:

- Inor ez.